-Zorra Gipuzkoako Foru Ogasunak, exekuzio epean, kontzeptu hori dela-eta Udalari bidalitako kobratu gabeko zergadunen zerrendan ageri direnak.

-Zordunak ez badu ondasun higiezinik bere izenean erregistratuta jabetza-erregistroan.

-Zordunak ez badu ondasun higigarririk, edo baldin badu, ondasun higigarri horrek 10 urte baino gehiago baditu.

13. artikulua. Premiamendu prozeduraren tramitazio egoera.

Premiamendu prozedura batean sartua badago zergadunak tramitazioaren egoeraren berri izateko aukera izango du. Era berean, lortu ahal izango du, berak ordainduta, espedientean dauden agirien kopia, baldin eta ez badituzte kaltetzen hirugarren batzuen interesak edo beste pertsona batzuen intimitatea, edo legeren batek horrela ezartzen badu. Ondorio horietarako, Udalak kopia horien kostua arautuko du.

14. artikulua. Erakunde Autonomo eta Udal Patronatuek ezarritako errekurtsoetan premiamenduzko prozedura bidez eginiko zerga-bilketa.

Erakunde Autonomo eta Udal Patronatuek, behin euren eskubideak kobratzeko borondatezko epea amaitu ondoren, eta Gida-zuzendaritza bakoitzak erabakia hartu ostean, udal zergabilketari euren zorrak kobratzeko premiamenduzko prozedura hasteko eskatuko diote.

Azken Xedapena.

Ordenantza hau 2025eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

012.01.-ERANSKINA
Zatikatzeko gehienezko epea eta aurkeztu beharreko bermeak eta diru aurrerakinak honakoak dira:

KOPURUA	**BERMEA**	**GEHINEZKO EPEA**	**AURRERAPENA**
< 60,00 €	Ez	Ez	Ez
60,00 – 400,00 €	Ez	6 hilabete	Ez
400,00 – 6.000,00 €	Ez	12 hilabete	Ez
>6.000,00 €	Bai	24 hilabete	Zenbatek. %20 eskatu ahal da

Hondamendi, alarma edo alerta-egoera, gertakari publiko larri edo arrisku larrien kasuan, Alkatetzak luzatu ahal izango ditu emandako atzeratzeak edo zatikatzeko ordaintzeko epeak.

13 UDAL ORDENANTZA, UDAL GARRAIO ZERBITZUAGATIK JASO BEHARREKO IZAERA PUBLIKO EZ TRIBUTARIOA DUEN ONDARE-PRESTAZIOA ARAUTZEN DUENA.

1. Artikulua. Foru Arauak.

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 20.4 artikuluak, 2019rako zenbait tributu-neurri onartzen dituen otsailaren 11ko 3/2019 Foru Arauak egindako idazketan ezartzen du herritarrek ordaindu beharreko hainbat kontraprestazio izaera publiko ez tributarioa duten ondare-prestazio publikotzat hartzen direla.

2. Artikulua. Xedea eta izaera.

Udal ordenantza honen xedea da udalerrian garraio publikoaren zerbitzua emateagatiko tarifak arautzea.

Derrigortasunez (koaktiboki) ezarritako kontraprestazio ekonomikoak (tarifak) dira eta zeharkako kudeaketaren bidez zerbitzuak emateagatik jasotzen direnak. Halakotzat hartuko dira, hain zuzen, zerbitzuak emateagatik eskatzen diren kontraprestazioak, besteak beste.

3. Artikulua. Ordaintzeko betebeharra sortzea.

Eranskinean zehazten den zerbitzua eskatzen denean edo ematen hasten denean sortzen da tarifa ordaintzeko betebeharra.

4. Artikulua. Ordaintzera behartuak.

Zerbitzuen onuradun izan diren pertsonek ordaindu beharra daukate tarifa.

5. Artikulua. Tarifak.

Eranskinean aipaturikoak dira tarifak (BEZ barne).

Tarifen integrazioko sistema jartzeko Hernaniko Udalak sinatutako lankidetza-hitzarmena (Osoko Bilkuraren 2013ko otsailaren 26ko akordioa) eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamendua (Hernaniko Osoko Bilkuraren 2023ko azaroaren 28ko akordioa) betez, ITG tarifa sistemak araututako tarifak eta erregelamenduak ezarritako xedapenak aplikatuko dira.

6. Artikulua. Tarifak berrikustea.

Eranskinean adierazitako tarifak indarrean egongo dira, harik eta Gipuzkoako Garraioko Lurralde Agintaritzak, Udala partaide duen partzuergoak, tarifa berriak onartu arte.

Behin onartu eta gero, Alkatetzaren edo eskuduntza hori eskuordetu duen organoak emandako ebazpen bidez eguneratu egingo da ordenantza honen eranskina.

7. Artikulua. Hobariak.

Eranskinean jasotako Garraioaren Gipuzkoako Lurralde Agintaritzak onartutako hobarien araubidea ezarriko da, unean unean hark ezartzen duen erregulazioarekin bat etorrita. Hobarien araubidea aldatuz gero, Alkatetzaren edo eskuduntza hori eskuordetu duen organoak emandako ebazpen bidez eguneratuko da ordenantza honen eranskina.

8. Artikulua. Kudeaketa arauak.

Garraio-titulurik ez duten bidaiariek, sarrera-kontrolpean edota behar bezala balioztua ez dutenek,

eskuratu egin beharko dute garraio-titulua eta egindako edota egin nahi den ibilbideagatik 50 euro ordaindu aparteko errekargu gisa.

Aipaturiko zenbatekoa lau laneguneko epean edota berehalakoan ordaindu ahal izango da; azken kasu horretan, ohiz kanpoko errekarguaren zenbatekoa 20 eurokoa izango da.

Xedapen indargabetzailea.

Hiri barneko garraio publikoaren zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen ordenantza fiskala indargabetuta geratu da.

Azken xedapena.

Ordenantza hau Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

13.01.-ERANSKINA I

01. Gipuzkoako Garraio Agintaritzaren Batzar Nagusiak onartutako tarifak, 2025/04/8an

BILETEA	
	€
Noizbehinkakoa	1,45
Gauekoa	2,10
25 URTE BAINO GEHIAGO	
MUGI TXARTELA/TARJETA MUGI	
	€
1-20 bidai / 1-20 viajes	0,44
21-50 bidai / 21-50 viajes	0,36
51 bidai edo gehiago / 51 viajes o más	0,09
Izengabea / Anónimo	0,58
GAZTEAK 15 = ETA 25 URTE BAINO GUTXIAGO	
MUGI TXARTELA / TARJETA MUGI	
	€
1-20 bidai / 1-20 viajes	0,44
21-50 bidai / 21-50 viajes	0,36
51 bidai edo gehiago / 51 viajes o más	0,09
*Tarifas BEZ barne	